


# GOGOBEKETZE INKESTAREN EMAITZAK

udal**top**

**UDALETAKO  
EUSKARA  
ZERBITZUEN  
TOPAKETAK**





## Sarrera

66 parte hartzailek erantzun dute aurtengo Udaltop Euskara Zerbitzuen Topaketaren balorazio orria. Balorazio orri honetan, zortzi galdera luzatu dira, zenbakiz aukeratu eta idatziz erantzutekoak. Eskala numerikoa 1-5 bitartekoa erabili da. Ondorioz, kontuan izan behar da txosten horretan azaltzen diren batz bestekoak horren gainean egin direla.

Oharrak:

1. Hitzaldi guztiak banan bana baloratzeko eskatu dugun arren, txosten honek ez du jasotzen balorazio hori.
2. Idatziz egindako komentarioetan errepikatzen ziren ideiak bateratu egin ditugu.

# Balorazio Orria

\* Derrigorrezkoa

## Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketa

udaltop

UDALETAKO  
EUSKARA  
ZERBITZUEN  
TOPAKETA



### 1. Eskainitako hitzaldiak egokiak izan al dira? \*

*Markatu aukera bakarra.*

1      2      3      4      5

Oso gaizki                  Bikain

### 2. Hobetzeko iruzkinak

.....

### 3. Jarrian baloratu aurtengo bideo eta hitzaldiak

Balorazio irizpidea: 1 (oso gaizki) - 5 (bikain)

Markatu aukera bakarra errenkada bakoitzean.

	1	2	3	4	5
Jarreratik jokaerara edo jokaeratik jarrerara? [Pello Jauregi]	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
16 urtez azpikoen kirola: antolamendua eta araubidea EAEn eta Nafarroan [Dorleta Ugalde, Andoni Irujo]	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Kirola: oinarritik euskaraz [Koikili Lertxundi]	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
8-16 urte arteko neska-mutilen kirola Euskal Herrian: eskola kirola, kirol eskolak eta ulertzen ez ditugun beste elkarketa batzuk [Luis M. Zulaika]	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Euskara sasoiari jartzeko hedabideak [Aritz Mutiozabal]	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Begirale, begira egotetik ekitera [Jokin Larrañaga]	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Kirolean euskaraz hezi [Josu Ganuza, Fernando Molina]	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Araubidean egin daitezkeen moldaketak, gaztetxoek kirola D eremuan egin dezaten ziurtatzeko [Unai Aberasturi]	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Gipuzkoako praktika on bat: Irun [Pablo Murias, Iñaki Alzaga, David Izaga]	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
D ereduko kirola ikerketa ekintza proiektua [Jone Miren Hernández, Pablo Suberbiola]	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Jardunaldien ondorioak eta proposamen batzuk [Maite Etxaniz, Iratxe Aranburu]	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Gaizka Garitanorekin solasean	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

### 4. Zer iruditu zaizu ostegun arratsaldeko ponentzien ordean mahai inguruak izatea?

Markatu aukera bakarra.

	1	2	3	4	5
Oso gaizki <input type="radio"/> <input type="radio"/> <input type="radio"/> <input type="radio"/> <input type="radio"/> Bikain					

### 5. Markatu aukera bakarra.

Beste jardunaldirik ez dut ezagutu

### 6. Hobetzeko iruzkinak

.....

**7. Zer iruditu zaizu aurtengo edizioan talde-lanik ez egotea? \****Markatu aukera bakarra.*

	1	2	3	4	5	
Oso gaizki	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Bikain

**8. Markatu aukera bakarra.** Beste jardunaldirik ez dut ezagutu**9. Hobetzeko iruzkinak**

.....

**10. Topaketa hauetan espero zenuena jaso al duzu? \****Markatu aukera bakarra.*

	1	2	3	4	5	
Oso gaizki	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Bikain

**11. Hobetzeko iruzkinak**

.....

**12. Zer iruditu zaizkizu topaketak oro har? \****Markatu aukera bakarra.*

	1	2	3	4	5	
Oso gaizki	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Bikain

**13. Hobetzeko iruzkinak**

.....

**14. Hurrengo topaketetarako egokiak izan daitezkeen gaiak proposatu: \***

.....

**15. Bestelakorik aipatzeko \***

.....

Garatzailea:





1. Eskainitako hitzaldiak egokiak izan al dira?

Erantzunen media: **3,8 puntu.**

2. Zer iruditu zaizu ostegun arratsaldeko ponentzien ordeztan mahainguruak izatea?

Erantzunen media: **4,5 puntu.**

#### Hobetzeko iruzkinak:

- Jatetxean bertan egitea eroso da. Agian arretarako ez da espazio hoberenik
- Mahai ingurua datuen erakusketa hutsa bada, ez dut diferentziarik ikusten; mahai ingurua eztabaida eta iritzi trukaketa bada, positiboa izan ahal da
- Goizak luzatu eta bazkalostea libre. Bazkalostean mahaitik mugitu gabe hizlariak hasiera lokuluxka egiteko aukera izan zen. arratsaldez egin behar bada, niretzat egokiagoa da aretora bueltatzea, paseotxoak espabilatu egiten nau.
- Eguerdiko azkeneko hitzaldia gehiegi ez atzeratzea komeni da, bestela ondorengo guztian eragiten baitu, dena atzeratuz.
- Beharrezkoa da ordutegiak errespetatzea eta bazkaldu ondoko jardunaldi osoan parte hartzeko konpromisoa hartzea, bestela etengabe jendea ateratzen ibiltzea itsusia eta arreta mantentzeko eragozpena da.
- Mahai ingurua jatetxean bertan egitea ideia ona iruditu zitzaidan, baina beheko solairuko mahai inguruko edukia (Lauro ikastolakoa izan ezik) nahiko pobrea izan zen.
- Jatetxean bertan burutzea ez zitzaidan egokia iruditu.
- ez dut aterabiderik egia errateko, baina ez dakit egokia den jangelan egitea, batez ere jenda joaten delako ordu ezberdinetan eta jendeak ez du aukerarik diskretua izateko.



### 3. Zer iruditu zaizu aurtengo edizioan talde-lanik ez egotea?

Erantzunen media: **3,63 puntu.**

#### Hobetzeko iruzkinak:

- Talde lanak denbora asko eskatzen badu ere aberasgarria izan daiteke eta beti da parte hartzailea
- Gaiaren araberakoa bada ere, ez dio ekarpen handiegirik egiten talde lanak jardunaldiari
- Nahiz eta taldean jarduteak esfortzua eskatu, jardunaldietan jasotakoari bueltatxo bat emateko aukera ematen digu
- Esperientzia praktikoagoak, baliabideak eta ez hainbeste kurrículuma kontatzea, portzentajeak ematea
- Badakit jende ainitz ez zela egoten. Baina nire iritziz horrek ematen zigun besteekin gauzak partekatzeko aukera. Beraz niretzat talde lan hoiak oso inportanteak ziren.

### 4. Topaketa hauetan espero zenuena jaso al duzu?

Erantzunen media: **3,7 puntu.**

### 5. Zer iruditu zaizkizu topaketak oro har?

Erantzunen media: **3,89 puntu.**

#### Hobetzeko iruzkinak:

- Eredu eta esperientzia positiboen falta sumatu dut
- Osteguneko atzerapenak saioak baldintzatu zituela uste dut, zenbait hizlariren jardunean eraginez eta entzuleen aurreikuspenak aldatuz
- Aurkezle bakarrarekin aritzea egokia iruditu zait, hobeki bateratu dela uste dut topaketa orokorrean. ongi barneratua zuen bere papera lbon



Gaztañazpik. Kirolari ohia izateak ere asko lagundu dio horretan, ekarpenak egiteko ere garaian ere gaia menderatzen zuela ikusi da.

- Antolaketa bikaina izan da. Ponentziak izan dira ahul xamarrak
- ordutegia hobeto zaintzea eta mahai inguruak mahai inguru izateko neurriak hartzea
- Iparraldeko egoeraren berri ez dugu izan. Bertako teknikariek esan zidaten han ez dutela kirol teknikaririk eta enpresa pribatuen esku dagoela esparru hori, baina, iruditzen zait kontatzeko esperientzia aipagarrik ez badute ere, izan beharko genukeela bizi duten egoeraren argazki txiki bat. Agian, horrelakoetan, jardunaldiaren hasieran, Euskal Herriko argazki orokor bat atera liteke, pare bat minutu eskainita lurralde bakoitzeko ordezkari, edo Nafarroa, EAE eta iparraldea edo antzeko zerbait
- Banekien ez zela oso egokia gure errealitateari, hemen kirola ez baita kudeatzen udaletik . Baina interesgarria zen eta balio zuen ikustea. Hizlariak zutik izatea askoz dinamikoagoa zen eta posible balitz ongi litzateke hola segitzea

## **6. Hurrengo topaketetarako egokiak izan daitezkeen gaiak proposatu:**

- Hizkuntza eta generoa
- Trebakuntza. Gaitasuna hobetzea arlo bakoitzean
- Lan mundua
- Gurasoak eta sozializazioa
- Erakunde publikoen euskalduntzea, aisialdia euskaraz, euskara teknologia berrietan
- Gazteak, aisialdia, hizkuntza normalkuntzan jokamolde berri posibleak
- Hizkuntza politika, beste politika publikoekin batera
- EH osoko Euskara Zerbitzuen arteko "saretzea" (topagunea(k), koordinazioa, lankidetzeta...)
- Helduen aisialdia
- Euskararen legeria. Erronka berriak
- Transmisioarekin loturiko gaiak





- Euskara eta atzerritarrak, nola erakarri. Euskara eta nazio hizkuntza, nola sentiarazi. Euskara eta globalizazioa, mundu mailako gizarteari zer eskaini. Euskara eta herria, nola aberastu egun euskara eta herria tradizioari begira
- Zelan aktibatu herritarrak esparru ezberdinetan euskaraz aritzeko, eta batez ere, administrazioarekin euskaraz aritzeko.
- Udal lege berrian euskararen ikuspegitik
- Nola bideratu daitezkeen elkarlaneko proiektuak, erakunde eta elkarten artean, eta baita erakundeen artean ere kontu hartzailezarekin erabateko talkan ibili gabe. Hau da, diru laguntza ez den beste bideren bat aurki daiteke horretarako?
- Euskararen aldeko diskurtsoak
- Euskalduntze-alfabetatzea, ordena berria, araudi berria
- Administrazio elektronikoan nola bultzatu euskararen erabilera?
- Motibazioa/Sentsibilizazioa/Jarrerak/Erakundeak, Euskalgintza elkarlana eta hizkuntza politika antolatzeneko erak
- Nola eskaini euskaldun izateko aukera gazteei: 3-16 urte bitartean proiektu osoak ezagutu (Kirola Euskaraz, aisialdi programak...). Haur-gazte euskaldunaren ibilbidea hezte prozesuan
- Euskararen erabilerarekin lotutako gaiak: zer egin daitezkeen erabilera bultzatzeko familian, gazteen artean... zoritxarrez betikoa da, baina horretan gehiago sakondu beharrean gaude
- Gazteen ahozkotetasuna, hizkuntza ez formala
- Pertsonen (haur/gazte/heldu) arteko harremanak euskaraz izan daitezen egin diren esperientziak eta emaitzak.
- Umeen artean euskararen erabilera bultzatzeko zer egin? Ahaleginak ahalegin umeei euren artean gero eta erdara gehiago egiten dute. Zergatik? Transmisioa da arazoa? Udalerri gaitasun faktoreak behar bada? Telebista? euskaraz oso gutxi...
- Euskara-Kulturgintza, non hasten da bat eta non bestea? Udalerrien tamainaren arabera?
- Etxeko transmisioa eta erabilera sustatzeko proposamenak
- Edozein izanda gaia ere, teoriari tartea eskaini. Egunerokoan, eskuak lanketa tekniko-administratiboetan sartuak ditugu. Urtean behin, oinarrietara edo fundamentuetara itzultzeak on egiten du.



- Kirolari buruzko hedabideen ereduak euskararen erabileraren gabeziak eta aukerak
- Eta basamortuan, hau da, ingurune erdaldunetan zertan ari gara?
- Administrazioak nola eragin dezake enpresek erabilera planak martxan jar ditzaten
- Komunikazioa eta teknologia berriak
- Egitasmo berritzaileak euskararen sozializazioan
- Musika Eskoletan D eredurik?
- Erabileran eragiteko ahozkotatasuna, erregistroak, jergak eta abar nola landu...
- Euskarak espazioak galdu ditu: -eskoletan (D eredukoak barne) gela-hizkuntza bihurtzeraino eta pasabideetan eta jolas-orduetan gaztelania nagusi izan arteraino. - aldiz, arnagune diren herri txikietan gurasoak kezkatuta daude gaztelaniarekin eta hurrek ikasi behar dutela esanez, gaztelania gehiago
- Eskolaz kanpoko jarduerak, tokian tokiko ondarearen transmisioa
- Nola erakarri etorri berriak euskarara
- Erabilera areagotzeko esparru anitzetako jardunbide egokien emaitzak
- Erdal giroan bizi diren gaztetxoek artean euskararen erabilera bultzatu: nola?
- IKT, alderdi politikoek duten papera normalizazioan edota ordezkari politiko eta teknikarien arteko elkarlana, tokiko aktibazioa, Hizkuntza Politikaren inpaktu-adierazleak...
- Ez dakit posible den baina probintzien arteko elkarlanari loturiko gaiak adibidez, euskararen erabilpena bultzatzeko

## 7. Bestelakorik aipatzeko:

- Ponentziak eta mahai inguruak, orokorrean, ekarpen interesgarriak egin zituzten. Ordu erdiko iraupenak, egokiak iruditu zitzaizkidan, zenbait gaik ez zuten gehiagorako ematen eta. Etorrizunari begira, jardunaldi arinagoak gomendatuko nituzke, ponentziez gain, aretoan bertan mahai inguruak eta eztabaidarako tarteak sustatuz. Jardunaldiak maila altua izan zuten eta antolaketa bikaina. Zorionak eta eskerrik asko antolatzaileoi. Hurrengora arte!



- Bikaina egindako lana! Mila esker!
- Materialak lehenago banatzea ona litzateke
- Oso gustura egon naiz, engantxatua gaiarekin.
- Hizlarietan asmatuz gero, arrakasta segurua
- Oso ideia ona arratsaldeko mahai inguruak jatetxean bertan egitea
- Oso egokia iruditu zait ostegunean bazkalondoko mahai inguruak jatetxean bertan egitea
- Hizlarien kalitatea oso ona
- Jardunaldia goizez izatea nahiago nuke, bazkaldu ondorengo saioetan entzuleen arreta jaitsi egiten delako eta askok alde egiten dutelako. Nik egun osoa izatekotan, jardunaldia egun bakarrera ekarriko nuke eta bestela bi goiz, guztiok lanez lepo gaude eta.
- Jardunaldietan aipatutakoak erakunde publikoei helaraztea komeni da, araubidean eragin nahi bada behintzat
- Alor teknikoan zailtasunak izan ziren.
- Zaila izan arren, garrantzitsua da ordutegiei heltzea. Jakin arren atzerapena egongo dela, garrantzitsua da aurkezleak hori ikusita galderak egiteko tartetan mugimendu gehiegi ez badago, moztea edo kaferako tartek txikitzea.
- Hasi ez den proiektu baten berri eroan ordu erdi batean... ez zait normala iruditu. Komunikatzaile batzuk oso eskasak izan dira
- Eskerrak eman egin duzuen lanagatik.
- EHan, 7 lurralde dira!
- Hitzaldi gehienak luzeegiak izan dira.
- Oso baliagarria iruditu zai kirol teknikariak ere parte hartzea.
- Harrigarria iruditu zait edizio honetan topaketak hasi aurretik txostenak webgunean eskegi ez izana
- Horrelako jardunaldiak antolatzen jarraitzea, oso egokiak eta lagungarriak iruditzen baitzaizkit gure eguneroko lanerako.
- Benetan eskertzekoa egindako lana. Oso ondo beste motatako teknikariek in egon izana.
- Saio guztietan aurkezle bakar bat egotea gustatu zait, eta Ibon Gaztañazpik ederto egin du.
- Hitzaldiak denbora neurtuagoak ekarri beharko lirakeela uste dut eta aurkezleak gehiago egin behar duela denbora horiek errespetatu daitezela.



Modu horretara, denak zentratuko lirateke edukian eta guztiek edukiko lukete eurena azaltzeko aukera berbera.

- Entzuleei egokitu. Nire iritzian aurtengo topaketan saio batzuk Sasoian aldizkariarena esaterako ez zegoen hango entzuleei zuzendutakoa.
- Oso interesgarria iruditzen zait euskara-zerbitzuetatik kanpoko jendeak protagonismoa hartzea eta jardunaldiaren hartzaile zuzenak izatea euskara-zerbitzuetako langileez gain, beste esparru batzuetako langileak ere
- Badu momentu bat joaten naizela eta oraindik ere hizlari batzuen partetik ta teknikari batzuen partetik nabaritzen da ez dutela sobera kontutan hartzen beste hiru probintzi badirela zeinetan badiren euskara teknikariak. Euskal herri osoa aipatzen da eta askotan EAE eta Nafarroaz ari dira. Gure aldetik sare bat sortu dugu Bortziriak, Irun eta Hondarribirekin euskararen erabilpena sustatzeko asmoz. Behar bada badira bestelako esperientziak elkarteen artean, beti ere helburu horrekin : euskararen erabilpena.
- Bizkaiko Foru Aldundia bai edo bai azaltzea, bestela Bizkaiko udaletxeak hankamotz gelditzen gara